



## FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure funtsezko jarduera gure armairuen muntaia egitea izango da, baita honen diseinu eta hobekuntzak planteatzea ere. Honetarako, gure baliabideak inportatu beharko ditugu, lan egin ahal izateko. Bezeroaren arabera, gure muntaia nola egin pentsatu ondoren, eraikuntzari ekin eta amaiera emango diogu gure produktuari. Dena prest dagoela, gure bezeroengana entregatuko dugu gure kanalak erabiliz. Hau ahal den azkarrena egingo dugu, bezeroekin harreman ona mantentzeko.

Jarduera garrantzitsuenak gure bezeroari harrera eman eta bere eskaera entzutea, eskaeraren arabera produktua diseinatzea eta produktuaren muntaia egitea izango dira, baita gure materialak eta produktuak behar diren tokietara eramatea eta gure langileek egiten duten lana ondo dagoela ziurtatzea ere.

